

PERTSONAK ARDATZ DITUEN AURREKONTU PROIEKTUA

*Proyecto de presupuestos para seguir
mejorando la calidad de vida de la población*

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin
- ↪ Aurrekontuak 2017

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Eguberriak beasainen
- ↪ Beasain kirol sariak 2016
- ↪ Arri BKLren 50. urteurrena
- ↪ Arku tiroketa erakustaldia
- ↪ Pasabidearen berritzea
- ↪ Txakur parkea
- ↪ Euskararen eguna
- ↪ Migranteen eguna

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Goiz Alzheimer

URTARRILEAN BEASAINEN...

**Leire
Artola**

Ogasun zinegotzia

HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETZEKO HELBURUAREKIN

Lehen egunetik, pertsonak izan dira guretzat garrantzitsuenak. Horregatik, gure eguneroko jarduna herritarren bizi kalitatea hobetzera bideratu dugu eta helburu hori jomuga, landu ditugu 2017rako aurrekontuak.

Proiektu eta egitasmo berriak txertatu ditugu gure herriak aurrera egiten jarrai dezan, egungo beharrak ahaztu gabe, jakina. Horregatik, 2017an, 2016an bezalaxe, gure lanaren ardatz eta lehentasunak berdinak izango dira: enplegua eta ekonomia, gizarte ongizatea, herriari nortasuna emateko kultur-jarduerak eta hirigintza hobekuntzak.

Gure aurrekontu proiektua oposizioko taldeen proposamenekin osatu eta aberastu dugu, joan den urtean egin genuen bezala. 2016an oposizioko taldeek aurkeztutako 17 proposamenetatik 13 txertatu genituen behin betiko aurrekontu proiektuan. Horietatik 10 jada gauzatu dira, bat hasia dago eta bi bidean daude.

Gobernu talde honek zinez sinesten du elkarlanean eta benetan aberasgarria dela uste dugu guztien iritzia eta proposamenak aurrekontu proiektuan jasotzea eta aurten bezalaxe, 2017an ere, ekintza guztiak eramango ditugu aurrera, gureak zein oposizioarenak.

Unos presupuestos que recogen las propuestas de todos

Tal y como lo hicimos el año pasado, hemos incluido en los presupuestos las propuestas de la oposición con el objeto de mejorar y enriquecer nuestro proyecto. El año pasado insertamos 13 de las 17 propuestas presentadas y este año hemos llevado a cabo 10 y las 3 restantes están en marcha. Nos comprometemos a llevar a cabo en 2017 todas las acciones recogidas, las suyas y las nuestras, porque todas persiguen un mismo objetivo: mejorar la calidad de vida de la población.



AURREKONTUAK 2017
PRESUPUESTOS 2017

PRINCIPALES OBJETIVOS Y EJES DE ACTUACIÓN

Los presupuestos son la herramienta para gestionar la economía y las finanzas del Ayuntamiento. Este documento tiene que prever los ingresos y establecer los gastos máximos anuales y, en base a ello, definir las actuaciones que se llevarán a cabo. Por lo que también es una herramienta de control tanto de la ejecución de las acciones, como de la correcta administración de los recursos municipales.

De cara al próximo año se mantienen los objetivos y las líneas de trabajo establecidos en 2016 con el objeto de seguir mejorando la calidad de vida de la población beasaindarra y responder así a sus principales necesidades.

1. Impulsar la economía local y el empleo
2. Garantizar las ayudas y programas sociales
3. Promover las actividades culturales de cara a dar vida e identidad al municipio
4. Acometer mejoras en los barrios y en puntos concretos de Beasain


Varios de los proyectos puestos en marcha en 2016 seguirán su curso y tendrán continuidad este 2017:

- Plan de empleo
- Programa Beasain Lagunkoia
- Programa Igartza Musika
- Convenio dantzan.eus
- La beca Igartza
- Beasain Kirol Sariak
- Mejoras en los barrios y en puntos del municipio
- Trabajos de mantenimiento
- El proyecto de las huertas sociales
- Plan para recuperar y revitalizar los espacios degradados
- El proyecto para el edificio Bonberia
- La reurbanización de la calle Zazpiburrieta
- Los trabajos para garantizar la seguridad en el edificio Olaran
- La campaña de concienciación llevada a cabo en las lonjas de jóvenes
- Trabajos de limpieza en el río

DOKUMENTU OSOA KONTSULTATZEKO →



<http://www.beasain.org>



ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN	4.955.255,74 euro
HERRITARRAK CIUDADANÍA	5.789.196,75 euro
LURRALDEA TERRITORIO	6.026.194,19 euro

GUZTIRA TOTAL : 16.770.646,68 euro

DIRU SARRERAK INGRESOS		GASTUAK GASTOS	
Zuzeneko zergak <i>Impuestos directos</i> (IBI, IAE, Ibilgailuak...)	3.682.600,00	Pertsonala <i>Personal</i>	4.787.046,71
Zeharkako zergak <i>Impuestos indirectos</i> (Eraikuntza eta Obren gaineko zerga)	210.421,06	Gastu arruntak <i>Gastos corrientes</i>	5.897.032,80
Tasak eta beste sarrerak <i>Tasas y otros ingresos</i> (Zaborrak, TAO, isunak, azoka...)	2.382.438,00	Gastu arruntei aurre egiteko elkarte eta herritarrentzako dirulanguntzak <i>Subvenciones para asociaciones y ciudadanos para gastos corrientes</i>	2.876.440,37
Zerbitzuetarako dirulanguntzak <i>Ayudas para servicios</i> (Fondo Forala...)	9.966.756,06	Aurrekontuaren doikuntza <i>Ajuste presupuesto</i>	100.000,00
Ondare sarrerak <i>Ingresos patrimoniales</i>	80.475,50	Aurrerakinak <i>Anticipos</i>	77.000,00
Inbertsio errealean besterentzeak <i>Enajenación inversiones reales</i>	284.543,62	Mailegu ordainketa <i>Pago de créditos</i>	540.000,00
Inbertsioetarako dirulanguntzak <i>Ayudas para inversiones</i>	365.613,00	Inbertsioak <i>Inversiones</i>	2.493.108,80
Finantza aktiboa <i>Activos financieros</i>	-202.200,30		
SARRERAK GUZTIRA INGRESOS TOTALES	16.770.646,68	GASTUAK GUZTIRA GASTOS TOTALES	16.770.646,68
AURREKONTU OSOA PRESUPUESTO TOTAL 16.770.646,68 euro			

ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN

- Udal webgune berria gardentasunean eta gertutasunean urratsak emateko eta herritarrei informazioa modu eraginkorrean helarazteko
- Irudi korporatiboa eta erakundearen egitura berria bateratu
- Langileentzako formazio plana diseinatu eta erakunde osoan euskara lan hizkuntza izateko urratsak eman
- Udalarekin harremanak modu elektronikoan areagotzeko egokitzapenak egin

LURRALDEA TERRITORIO

- Dolare parkea txukuntzea eta partehartze prozesu baten bidez azpiegitura horren egokitzea
- Haur jolastokien egokitzapena
- Energia eta ura aurrezteko kanpainak eta neurriak: kale argiztapenean eraginkortasuna hobetzeko eta udal eraikinak araudi elektrikora egokitzeko proiektuak
- Errekaren garbiketa lanak
- Mugikortasun plana eta herriko aparkaleku kopurua handitzeko proiektuak lantzea.

HERRITARRAK CIUDADANÍA

- Kirol instalakuntzetan hobekuntzak
 - Loinaz futbol zelaiaren belar aldaketa
 - Goiz Alzheimer programa, gaixotasunaren detekzio goiztiarrerako
 - Euskararen erabilera indartzeko programa berriak
 - Merkataritza eta enpresetan euskararen sentsibilizazioa zein erabilera bultzatzeko plana abian jarri
 - Bizikidetza sustatzeko ekimen ezberdinak jarriko dira martxan Baketik fundazioarekin elkarlanean
 - Harrera programa Beasainera bizitzera datozen herritar berrientzat
 - Herriko puntu larrien azterketa
 - Baserritarren azoka larunbatetan ere ezartzeko aukera jorratu
 - Parte hartze prozesuak
- MUSIKA ESKOLA/ KIROLDEGIA/
EUSKALTEGIA

ABENDUAN BEASAINEN



Olentzero eta Mari Domingi Beasainen



Gabonetako haur parkea



Marrazki lehiaketa eta liburu eta disko azoka

Eguberriak Beasainen



Eguberrietako erakusleho lehiaketa. Irabazleak:
1. Xalo, 2. Kux Kux, 3. Alzuri



Aurtzakako haurren emanaldia



Musika eskolako Eguberri kontzertua

Beasain kirol sariak 2016

Gizonezko Kirolaria: Jon Erguin

Emakumezko Kirolaria: Irati Zubizarreta

Ekipoa, Kirol Taldea edo Elkartea: BKL

Ikastetxea edo Guraso Elkartea: Atzegi

Kirol Ibilbidea: Ehunmilak 2010 - 2016

Erakunde edo Enpresa Babeslea: ARRI

Pertsona Boluntarioa: Ehunmilak
Bolondresak

Kirol Jarduera: VII. Ehunmilak

Sari Nagusia 2016: BKL

Udal saria: Real Sociedad

Aipamen Berezia:

Arku Tiroketa 25 URTE, Shorinji-Kempo 35 URTE, ARRANO BELTZA Euskal Herri Kirol Taldea + 35 URTE, Lorea Wu-Shu 35 URTE, BKL SASKIBALOIA 50 URTE



Ari BKLren 50. urteurreneko ekitaldien aurkezpena



Arku tiroketa erakustaldia



Euskararen eguna: Mintzodromoa



Migranteen eguna

Hirigintzan berrikuntzak



Nafarroa etorbidea eta oriamendi kaleen arteko pasabidearen berritzea



Txakur parkea Ezkiagan

GOIZ ALZHEIMER



ALZHEIMERRA GARAIZ DIAGNOSTIKATZEKO SAIAKERA

Gutxitan hausnartu ohi dugu gure osasun mentalari buruz eta are gutxiago haren etorkizunaz ondo gauden bitartean. Alzheimerra, baina, dementzia eragiten duen gaixotasunik ohikoena da; poliki garatzen den arren denbora igarotzen da gaixoak sintomak somatzen dituen arte. Horregatik, behin gaixotasuna garatzen hasita ez du atzera bueltarik izaten eta oroimena galduz joaten da gaixoa neurona sareetan zuzen-zuzenean eragiten duelako.

Ziurrenik guztiok dugu gure inguruan gaixotasun hau duen norbait eta haien eskutik, Alzheimerra zeinen gogor eta krudela izan daitekeen ikusteko aukera izaten dugu. Tristetazuna eragiten du sarritan, egoera surrealista ere bai, barregarriak izateraino, beste batzuetan. Hainbat eta hainbat momentutan, galduta ikusten ditugunean, hitz goxoak belarrira esanez lasaitzen ahalegintzen gara, momentu horretan senti dezaketen noraeza eta ulertezintasuna baretze aldera, baina badakigu, bai, 5 minututan ahaztua izango dutela guztia, kasurik hoberenean.

Garuna da dugun altxorrik ia preziatuena eta gaitz honek guretzat garrantzitsuena dena kentzen digu, gure oroitzapen, bizipen, sentipen eta momentu txiki guztiak galdu eta ahaztu arazten dizkigu, etxeko izenak ez gogoratzeraino.

Gaixotasun neurodegeneratiboek urte asko behar izaten dituzte sintomak garatzeko, Hori

dela eta, esan dugun moduan, medikuak diagnostikatzen duenerako larria izaten da.

65 urtetik gorako hamar pertsonetatik batek garatzen du gaixotasun hau eta egun oraindik ez du tratamendu eraginkorrik, baina garatzen hasten denean diagnostikatzeko lortzen bada egoera eta prozesua alda liteke, beraz, prebentzioan eta diagnosi goiztiarrean dago gakoa. Eta hain justu, helburu hori du GOIZ ALZHEIMER proiektuak: gaixotasunaren identifikazio goiztiarra bultzatzeko tresna diseinatzea eta garatzea.

Horretarako, inkesta ezberdinen bitartez gaixotasunak zein sintoma eta aldaketa eragiten dituen identifikatu nahi da medikuek aldaketa horiengan jar dezaten arreta Alzheimerra garaiz diagnostikatzeko. Diagnosi goiztiarra lagungarria da oso gaixoarentzat eta bere familiarentzat. Zergatik? Garaiz identifikatuta, familiak informazioa osoa jaso dezakelako eta gaixotasunak zein bilakaera izango duen jakinda, hari aurre egitea errazagoa izango delako eta horrek, gaixoaren bizi kalitatea eta autonomia urteetan luzatzen laguntzen du.

Beraz, proiektu honen helburu nagusia identifikazio goiztiarra da, baina horretarako gizartea proiektuan inplikatu nahi da gizarteak gaixotasun honekiko kontzientzia hartzea garrantzitsua delako.

Parte hartu nahi?

EZAGUTU PROIEKTUA CONOCE EL PROYECTO

Proiektuaren aurkezpena Pablo Marínez Lage Alzheimer Zita fundazioko zuzendariaren eskutik.

Presentación del proyecto de la mano del presidente de la Fundación Cita Alzheimer, Pablo Martínez Lage.

Noiz *Cuándo*


Urtarrilak 13 *enero*

Non *Dónde*

Usurbe antzokia

Ordua *Hora*

17:00 - 19:00



<https://vimeo.com/125661832>



Aurrea hartu bizitzari • Adelántate a la enfermedad



Aurrea hartu bizitzari • Adelántate a la enfermedad

PROYECTO GOIZ ALZHEIMER, UNA INVERSIÓN PARA EL FUTURO

Gracias al convenio suscrito entre el Ayuntamiento, Osakidetza (Hospital Zumarraga) y la Fundación Cita Alzheimer en breve se pondrá en marcha el proyecto GOIZ en Beasain.

Esta iniciativa se enmarca dentro de la estrategia STOP ALZHEIMER y dará continuidad al proyecto comenzado por la fundación en Deba. El proyecto tiene como objetivo mejorar el diagnóstico y tratamiento del Alzheimer para favorecer la prevención y detección temprana de la enfermedad; por lo que incide en dos ejes de actuación, científico/asistencial, por un lado, y atención social, por otro.

Para ello se ha constituido un grupo de trabajo formado por personal de la fundación y por personal de la OSI de Goierri-Urola Garaia, del Hospital Zumarraga, del Ambulatorio de Beasain y del Ayuntamiento.

Se pondrá en funcionamiento una oficina de atención para valorar, atender y pre-seleccionar a las personas interesadas en participar en el estudio.

Por tanto, este proyecto que promueve la participación ciudadana y la colaboración y cooperación entre diferentes agentes se proyecta como una inversión que mira al futuro:

UN PROBLEMA DE TODOS REQUIERE UNA RESPUESTA DE TODOS



KZ gunea IKASTAROAK

Urruneko formakuntza Formación a distancia

	Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Google aplikazioak Aplicaciones Google		2017.01.02	4 aste 4 semanas
Lan-bilaketa Interneten Búsqueda de trabajo en Internet		2017.01.02	4 aste 4 semanas
Android sistema eragilea Sistema operativo Android		2017.01.02	4 aste 4 semanas
Sare Sozialak Redes Sociales		2017.01.02	4 aste 4 semanas
Ofimatika aurreratua Ofimática avanzada		2017.01.02	4 aste 4 semanas

Ikastaro presentzialak Cursos presenciales

	Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Argazki ukituak: Gimp/ Retoque fotográfico: Gimp		2017.01.02	16h (16.00-18.00)
Oinarrizko Internet/ Internet básico (Euskara)		2017.01.02	20h (09.00-11.00)
Oinarrizko Internet/ Internet básico		2017.01.16	20h (11.00-13.00)
LibreOffice		2017.01.16	20h (18.00-20.00)
Gmail		2017.01.23	2h (09.00-11.00)
Doako Antibirus/ Antivirus gratuito (Euskara)		2017.01.30	2h (11.00-13.00)
Erosketa seguruak Interneten/ Compras seguras en Internet		2017.01.30	2h (18.00-20.00)
Ordainketa seguruak Interneten/ Pagos seguros en Internet		2017.01.31	2h (18.00-20.00)
Youtube (Euskara)		2017.01.31	2h (11.00-13.00)

Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL 2017

ZERGAk eta TASAK 2017 IMPUESTOS Y TASAS 2017	Borondatezko Kobrantza Pago voluntario	Helbideratutako kobrantza Recibos domiciliados
Egoiliarrentzako aparkalekua/ Aparcamiento para residentes	2017. 01.02 - 2017.02.28	2017.01.31
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga/ Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica	2017. 02.01 - 2017.03.31	2017.03.31
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) / I.B.I.	2017. 05.15 - 2017.06.30	2017.06.30
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera/ Entrada de vehículos en fincas urbanas	2017. 09.01 - 2017.10.31	2017.10.31
Ibilgailuen geraleku eta kokagunea / Parada y situación de vehículos	2017. 09.01 - 2017.10.31	2017.10.31
Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga (J.E.Z.) / Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)	2017. 10.01 - 2017.11.10	2017.11.10
Kioskoak herri bidean/ Quioscos en la vía pública	2017. 10.01 - 2017.12.01	2017.12.01
Zabor-bilketa/ Recogida de Basuras:		
1. Sei hilekoa- 1º trimestre	2017. 03.01 - 2017.04.30	2017.04.30
2. Sei hilekoa- 2º semestre	2017. 09.01 - 2017.10.31	2017.10.31

JAKINARAZPENA NOTIFICACIÓN

OHZaren ordainketarako hobariak familia ugariarentzat

Bonificaciones en el IBI para familias numerosas

Eskaria egiteko epea Plazo para la solicitud

2017.01.01-2017.01.31

Lege gordailua SS 403-2016

